



25/2026 Irizpena, uztailaren 2koa Nafarroako Foru Administrazioaren ondare-erantzukizuna, epaia ez betearazteagatik.

Eskatzailea: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua

Txostengilea: Eduardo Santos Itoiz

Interesa: Erreklamatzeko epearen preskripzioa. Kausazko lotura: egiteko betebeharra. Txosten teknikoak zentzuzkotasun-parametro gisa.

Irizpen honen xedea da ondare-erantzukizuneko erreklamazio bat, abiarazi baitu –4588/2025 Ebazpenaren bidez– Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzaileak. Erreklamazioak oinarri du Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren jarduketa jakin bat, zeinak kalte-galerak eragin baitzituen, ustez, batez ere bi inguruabarren inguruan: batetik, erreklamatzaileraren alaba babesgabetzat jotzea, eta, bestetik, bete gabe uztea hura jatorrizko familiara egiazki itzultzea eskatzen zuten ebazpen judizialak.

Familia eta Berdintasunerako Nafarroako Institutuko zuzendari kudeatzaileak emandako 1326/2012 Ebazpenaren bidez, amaitutzat jo zen adingabearen babesgabetasun-egoera deklaratzeko prozedura, babesgabetasun-egoera deklaratu zen, eta haren tutoretza onetsi zen automatikoki, erreklamatzailerak adingabearen ardura hartzeko asmorik ez zuela adierazi ondoren, bi gizarte-langilek sinatutako agiri batean. Iruñeko Lehen Auzialdiko 3. Epaitegiak 2013ko urtarrilean emandako auto baten bidez, adingabea adopzio aurreko familia-harreran har zezatela agindu zuen. Erreklamatzailerak apelatu egin zuen auto hori, eta Nafarroako Probintzia Auzitegiak berretsi, 2014ko apirilean emandako auto baten bidez. 2013ko urtarrileko auto baten bidez, Iruñeko Lehen Auzialdiko 3. Epaitegiak adingabea adoptatzea erabaki zuen; erreklamatzailerak apelatu egin zuen auto hori. 2014ko apirilko auto baten bidez, Nafarroako Probintzia Auzitegiak indarrrik gabe utzi zuen aipatutako adopzioa.

2014ko maiatzean, erreklamatzailerak aurkaratze-demanda aurkeztu zuen Familia eta Berdintasunerako Nafarroako Institutuko zuzendari kudeatzaileak emandako 1326/2012 Ebazpenaren aurka; ebazpen horren bidez, amaitutzat jo zen adingabearen babesgabetasun-egoera deklaratzeko prozedura, babesgabetasun-egoera deklaratu zen, eta haren tutoretza onetsi zen automatikoki. Demanda hori ezetsi egin zen, Iruñeko Lehen Auzialdiko 3. Epaitegiak 2015eko urtarrilean emandako epai baten bidez. Apelazio-errekurtsoa aurkeztu zen, eta Nafarroako Probintzia Auzitegiak 414/2015 epaia eman zuen, non, une hartako inguruabarrak aztertu ondoren, ebatsi baitzuen harrera soila aplikatzea adingabeari,

familia biologikoarekin itzultzen zen arte, pixkanaka, eta Gizarte Zerbitzuek prozesua gainbegiratuta. Epai hori betetzeko, hainbat neurri eta esku-hartze gauzatu ziren, baina ez zen amaren eta neskaren arteko lotura-harremana lortu. Gurasotasuna Koordinatzeko Zerbitzuak, eta esku hartu zuten psikologoek eta gainerako erakundeek hainbat balorazio-txosten eman ondoren, Fiskaltzak jakinarazi zuen eten egin behar zela esku-hartzea, adingabeari ondoez gehiagorik ez eragiteko asmoz. 154/2024 Autoaren bidez, Nafarroako Probintzia Auzitegiko 3. Atalak deklaratu zuen «ezinezkoa zela 2015eko azaroaren 10eko epaia betearaztea, eta harrera iraunkorrean aritu behar zela harrera-familiarekin». 2025eko apirilean, ondare-erantzukizuneko erreklamazioa aurkeztu zitzaion Nafarroako Gobernuari.

Kontseiluak erreklamazioa egiteko epea (urtebete) preskribatua den aztertu du; izan ere, Administrazioaren aseguru-etxeak alegatu du ezen, haren ustez, erreklamatzeko «dies a quo» delakoa Probintzia Auzitegiaren 2015eko epaiaren jakinarazpena izan beharko litzatekeela, zeinean adingabea ama biologikoarekin pixkanaka hurbilaraztea agintzen baitzen, eta ez hamar urte geroago. Alabaina, Kontseiluaren ustez, hemen ez dago kolokan bere garaian deklaraturako babesgabetasuna zuzenbidearen arabera den ala ez, baizik eta Nafarroako Probintzia Auzitegiaren 2015eko epaia betetzeko egindako administrazio-jarduera oro izan den zuzenbidearen arabera den ala ez. Argi dago epai horren betearazpenak Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziari beste administrazio-egintza bat agintzen ziola, zeinak ondorioz gabe utziko baitzuen Nafarroako Probintzia Auzitegiak une horretan ebatzitako harrera soila, hartara auzitegiak agindutakoa gauzatzeko asmoz, hau da, adingabea amarekin itzularaztea. Egintza hori ez zen inoiz gauzatu izan; 2024ko urriaren 24ko autoaren jakinarazpenarekin egiaztatu zen zerbait egiteko betebeharrak hori ezin zela bete. Horrenbestez, ondare-erreklamazioa epe barruan dago, eta onartu eta izapidetu beharrean da, Administrazioak zuzen egin duen bezala.

Egintzaren eta erreklamaturako kaltearen arteko kausazko loturari dagokionez, Kontseiluak, lehenik eta behin, adingabea jaio zenetik Nafarroako Probintzia Auzitegiaren 2015eko epaira arte izandako jarduketak aztertu ditu, eta ondorioztatu du ezen, lehen une horretan Administrazioaren jarduketatik kaltea gertatu ahal izan bazen ere, kalte hori ama ez artatzeagatik gertatu zela, adingabearen aldeko babes-egintzagatik (zeina Botere Judizialak guztiz baliozkotu baitzuen funtsezko alderdietan) baino gehiago. Beraz, kalte horrek ez zuen irismen antijuridikorik izan, errekurtsogileak jasan beharreko gain; izan ere, adingabea zaindu eta harentzako babes-ingurune bat sortzeko interes gorenak lehentasuna zuen. Hau da, babesgabezia-egoerarik izan zen, ama biologikoaren jarduerak zerikusirik izan zuen kausak tartean zirela, eta

haren deklarazioari, zaintzari, bisiten eteteari eta ondorengo harrerari buruzko jarduketak judizialki baliozkotu ziren, argudio desberdinekin izan arren. Eta, ildo horretatik, hartutako erabakiak justifikatuta zeuden bere garaian, eta ezin ziren lortu nahi zen helburuari begira irrazionaltzat, arbitrariotzat edo desegokitza jo. Ez da kalte-ordaina emateko betebeharrak sortzen; izan ere, administrazio-jarduketa arrazoizko mugen barruan eta modu arrazoituan gertatu da, eta, gainerakoan, egiaztatuta geratu da administrazio-erabakiak hartzean irizpide teknikoen eta elkarren aurkako irizpide eta interesak baloratzerakoan aplikatutako elementuen arrazoiketa bat jaso zela. Horrenbestez, ez da kalte-ordainik eman behar erabaki horietakoren bat geroago judizialki zuzendu edo ñabartu izatearen ondorioz. Kontseiluak azpimarratu duenez, auzi-jartzailearen uziak baiesten dituen ebazpen judizialak ez ditu kolokan jartzen hartutako neurriak (hitzez hitz, egokitza jotzen ditu); aitzitik, neurri horiek berrikusi egiten ditu, uste baitu funtsezko aldaketa bat gertatu dela, adingabea amarekin itzultzea baloratu ahal izateko, geroago desagertu egin direlako babesgabetasun-deklarazioa eragin zuten inguruabarrak, eta harreman horren bilakaerari buruzko baldintzekin. Hala gauzak, harreman hori pixkanaka berreskuratu beharrekoa da, betiere Administrazioaren zaintza tarteko.

Administrazioaren bigarren une bateko jardunari dagokionez (hau da, 2015eko epaitik aurrera), Kontseiluak uste du Administrazioak egiteko betebeharra duela kasu honetan, hau da, eskura dituen baliabide egokiak jokoan jartzeko betebeharra, baldin eta –egoki bada– adingabea jatorrizko familiarekin itzuli dadin. Hala ere, inola ere ez da emaitza-erantzukizun bat, hots, ez da ondare-erantzukizunik eragiten ama biologikoak erreklamatu eta eskatutako emaitza (hots, adingabea amarengana benetan itzultzea) ez gertatzeagatik. Kontseilu horren iritziz, Nafarroako Administrazioak haren esku zeuden baliabide egokiak jarri ditu, unean-unean zituen gaitasun eta datuekin, helburu hori lortzen saiatzeko. Baina, batzuetan, borondatearen egikaritze hutsa ez da nahi den emaitza lortzeko aski. Ildo horretan, nahikoa da espediente eta ama biologikoak egin duen borroka judizial bizia egiaztatzea, zehazteko une batean esku-hartzeak «sabaia jo» zuela, eta esku-hartzea azpimarratzeak arazo gehiago sortzen zizkiela alde guztiei –harrera-familiari ere bai–, babestu nahi ziren eskubideak babestu baino, betiere profesional askok era berean baloratu duten esku-hartze batean, nahiz eta interes desberdinekin aritu diren, eta ikuspegi desberdinetatik abiatuta. Nahiz eta prozedura kontraesankorra izan den, ikuspegi hori bat dator, azken batean, errekurritu eta berretsitako ebazpen judizial batekin, zeinak, gainera, administrazio publikoak orain arte egindako jarduketa guztiak bermatzen baititu.

Kontseiluak nabarmendu egin nahi du Auzitegi Gorenak txosten teknikoei buruz eman duen doktrina, eska daitezkeen arrazionaltasun-parametroak aztertzeko elementu gisa.

Nafarroako Kontseiluak ondorioztatzen du ezetsi egin behar dela erreklamaziogileak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Gizarte Zerbitzuen funtzionamenduak eragindako ustezko kalte-galerengatik aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioa.